(I) ELHEKETA. ASTE HUNTAKO SOLAS BIDEA.

1. Murillo eta Xiripa nor ziren? Zertako ez ziren sartu schiaren gelan?
2. Muthil zaharrenak zer ukan zuen eta zer egin hil ainzin? 3. Nola muthil gaztena ilzori zen hilzetik?

Piarres

(II)

MARIA ZAHARRA 5

Gau erditsutan, sullardako[14] leihotik sartu ziren Xirripa eta Murillo. Ezpartinak beherean utzirik, schiaren atheari lothu ziren lehenik; bainan debaldetan, haixturrek finki barnetik gogor eginik.

Muthilen ganbaralat jo zuten orduan, eta harat orduko, kanit-puñal handi bat tripan sartu muthil zaharrenari. Muthil ttikia, harriturik, jauzian, ixil ixila, gorde zen aldiz ganbarako harmairu batean...

Tripak idekirik, bizkitartean, Murillori saltoan lothu zitzaion muthil gazte dohakabea. Hainitz odol jada galdua izanagatik, nola baitzen izigarri hazkarra, kartzaren pare ari zen Murillorekin borrokan, besoez, aztaparrez eta haginez. Hainbertzetaraino ziren biak elgarri josiak, non ez baitzen Xirripa menturatu heien artean sartzerat. Harritua ere ziteken behar bada...

Muthil gazteak azkenean, errabian, zangoko erhi handia asikian hartu zion Murillori. Murillo orduan erdi flakaturik, saratar muthikoak bi besoetan hartu zuen gaixtagina eta leihotik botatu. Harramantzetan katzarririk,[15] tiroka bere leihotik hasi zen Ithurbide nausia; muthilarenganat hastetik laster egin balu, behar bada, muthiko gaizoa odol-hustu gabe geldituren baitzen eta salbatuko!...

Oihu hek, tiro hek, odol haren ikusteak, edo nik dakita zerk iziturik, leihotik salto egin zuen Xirripak; eta, hertzeak dilindan, herrestan, ahal zuen bezala, nausiaren atheraino joan zen muthiko gaixoa.

Bainan, ez zen nausia idekitzerat atrebitu, eta han berean hil zen muthila; behar bada, artha-eskasean.

Bere gordagiatik orduan athera zen muthil ttikia.

Bainan berantegi, zorigaitzez! Harenganik jakin ziren halere gizon-hiltze hartako xehetasunak.

(III) ADITZ IKASKUNTZA

31. Lotu zitzaion 32. Harritua ziteken
33. Hartu zion 34. Egin balu
35. Nik dakita

31. IZAN. Régime indirect. Indic. Imparfait.

(Hura) Zen = il était.

Hura (hui) zitzaitan = il m'était
zitzaizun = il vous était
zitzaion = il lui était
zitzaigun = il nous était
zitzaizuen = il vous était
zitzaien = il leur était

32. IZAN. Potentiel. Imparfait.

Ni izan ninteken = je pouvais être
Hi -"- hinteken = tu pouvais être
Zu -"- zintezken = vous pouviez être
Hura -"- ziteken = il pouvait être
Gu -"- gintezken = nous pouvions être
Zuek -"- zintezketen = vous pouviez être
Hek -"- zitezken = ils pouvaient être

33. UKAN. Conj. à dble cplt. Indic. Imparfait

C.I. sing. - Hari = à lui - Objet sing. -

Nik nion = je le lui avais
Zuk zinion = vous le lui aviez
Harek zion = il le lui avait
Guk ginion = nous le lui avions
Zuek zinioten = vous le lui aviez
Heiek zioten = ils le lui avaient